
Kutxa Kultur Enea | Deialdia

1. Kutxa Kultur Enea Programaren aurrekariak

Kutxa Fundazioak, bere xedeen artean kulturaren sustapena duen fundazioak, lehen aldiz 2016ko apirilean jarri zuen martxan Kutxa Kultur Enea deituriko programa, kultura-coworkingeko programa, Kutxa Fundazioak Donostian Tabakalera eraikineko laugarren solairuan duen gunean zertzen dena. Ordudanik, Kutxa Kultur Enea ekintzailatza eta laguntzarako lehen gune bihurtu da Gipuzkoako kultura-proiektuentzat.

2. Programaren Helburuak

Kutxa Kultur Enea Programaren helburua kultura-coworking-erako gune bat sortzea da, gehienez 40 ekintzailek partekatua, komunitate sortzaile, dinamiko eta berritzailea garatzeko helburuaz, lekua izan dezaten bertan askotariko kultura-proiektuek: diseinu, marketin, musika, moda, argazkigintza, gastronomia, arte, dantza, ekitaldi eta ikuskizunen sustapen eta beste arlo batzuetakoek.

Programa gauzatzen den lekuak badu beharrezko azpiegitura (inprimagailuak, eskanerra, laneko box-ak, bilera-gelak, banako armairuak, office eta Internetarako konexioa) proiektuak garatzeko.

3. Parte hartzeko baldintzak

Programa honetan sartzea profesionalek, ekintzaileek, elkarteek edo enpresek eska dezakete, baldin eta:

- Gipuzkoako lurraldean sustraituta badaude.
- Ekimen edo proiektu berritzaileak garatzen ari badira, eta batez ere Gipuzkoako kultura-sektoreari balio erantsia ematen badiote.
- Negozio-idea bat identifikatuta baldin badute eta garatu edo/eta gauzatu nahi badute.
- Argi eta garbi bizikidetzaren, partekatzearen, lankidetzaren eta beste eragileekiko konexioaren alde egiten badute, sorkuntza-iturburu gisa.

4. Proiektuak aurkeztea

Izena emateko epea zabalik izango da 2019ko uztailaren 1etik aurrea, eta aurkezteko azken eguna 2019ko irailaren 30a izango da, 14:00etan.

Aurkezturiko proiektuek ahalik eta zehaztasun handienaz idatzita egon behar dute, nabarmen azalduz beren indar-guneak.

Horretarako, www.kutxakultur.eus webgunean, Kutxa Kultur Enea atalean, eskatzaileen eskura izango den formularioa bete behar da, bertan deskribatuz proiektuaren datuak, helburuak eta abar

5. Kutxa Kultur Enea programaren iraunaldia

Programaren iraunaldia urtebetekoa izango da, beste batera luzagarria ebaluazio-batzordearen balorazioaren arabera.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. www.kutxakultur.eus webgunean dagoen formularioa beteta
2. NAN edo IFKren kopia
3. Autonomoak: jardueran alta eta gizarte segurantzari autonomo gisa alta egiaztatzen duten agiriak
4. Merkataritza-sozietateak eta erakundeak: IFZren kopia, enpresa edo elkartearen eraketako eskrituraren kopia eta behar bezala legeztaturiko estatutuen kopia.
5. Merkataritza-sozietateak eta erakundeak: eskaera izenpetzen duenaren ahalordearen kopia edo zuzendaritza-batzordearen akta, non doakionari ahalmena ematen zaion elkartearen kasurako eta eskaera egiten duen pertsonaren NANen kopia.
6. Negozio-eredua Canvas Business Model tresna erabiliz; zehaztu behar da balio-proposamena, merkatua, bezeroak, beharrezko baliabideak, kostu eta sarreraren egitura.

7. Proposamenen balorazioa

Proposamenak berrikuntza, enpresa eta kulturaren adituak diren eragileek osaturiko aditu-batzorde batek aztertuko ditu.

Programan parte hartzen dutenak aukeratzeko, honako hauek baloratuko dira: proiektuak Gipuzkoako kultura eremura egiten duen ekarpena, izaera berritzailea, agerikotasuna, komunitateari egiten dion ekarpena, eta programara aurkezturiko negozio-eredua aurkitzen deneko fasea, zehaztapen-maila eta abar.

8. Ebazpena

Jasotako eskaerei dagokien erabakia 2019ko urriko bigarren hamabostaldian izango da.

Kutxa Fundazioak komunikazio-mezu bat bidaliko die hautaturiko parte-hartzaileei eta hautatu gabeiei.

Kutxa Fundazioaren erabakia apelaezina izango da, Kutxa Fundazioari dagokiolarik betebeharren eta oinarrien azken interpretazioa.

9. Hautaturiko parte-hartzaileen eskubideak eta betebeharrak

Kutxa Fundazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu Kutxa Kultur Enea Programan parte hartzen dutenekiko:

-Enpresa-kudeaketari buruzko aholkularitza eta prestakuntza ematea, negozio-plana garatzeko eta beraren bideragarritasun-planerako.

-Lekua dinamizatzea networking jarduerekin.

-Ezagutza eta harremana erraztea lurraldeko kultura- eta enpresa-ekosistemarekin.

-Kutxa Kultur-ek Tabakalera duen gainerako azpiegitura erabiltzeko aukera eskaintzea, horrek beren proiektuei ikusgaitasuna ematea ahalbidetuko dielarik parte-hartzaileei.

Bestalde, parte-hartzaileek, Programako kide gisa, honako konpromiso hauek hartu behar dituzte beren gain:

-Lekuaren mantentze-gastuei aurre egitea (85€ BEZ barne jardunaldi osoa, eta 50€ BEZ barne jardunaldi erdia).

-Negozio-eredu baten definizioa edo/eta garapena.

-Nahitaez joan beharra prestakuntza- eta tutorizazio-saioetara.

-Parte-hartze aktiboa dinamizazio-jardueretan.

-Erantzukizun zibileko poliza kontratatuta izatea elkartearen, enpresaren edo norberaren izenean, pertsona fisiko gisa parte hartuz gero.

-Kutxabanken kontu korrontea izatea Programan parte hartzen duen elkartearen, enpresaren edo pertsona fisikoaren izenean, mantentze-gastuak zorduntzeko.

10. Datuak babestea eta konfidentzialtasuna

Datuak babesteko eta konfidentzialtasuneko gure politikaren xehetasunak [hemen](#) ikus ditzakezu.

Eskaera ez bada onartzen, jakinarazten dizugu zuk emandako informazio guztia, bai paperean eta bai telematikoki, suntsitu eta deuseztatu egingo dela deialdiari buruzko erabakia hartu eta hilabetera, baina ez berariaz eskatzen badiguzu informazio hori itzultzeko.

Garrantzitsua

Programan parte hartzeko eskaerak oinarri hauek onartzea inplikatzeko du.

Eskakizunen eta oinarrien azken interpretazioa Kutxa Fundazioarena da.
Oinarrietakoren bat ez betetzea kanporatzerako arrazoia izan daiteke.